

Baliabide-bankuan eskuragarri duzu «IKTak modu egokian erabili V» izeneko fitxa. Horren bidez, Sarean ibiltzean jarraitu beharreko zenbait arau adieraz diezazkiekezu. Adibidez:

– Mezu elektroniko bat nola bidali behar den.

– Cookieekin zer egin behar den.

– IKTak erabiltzeko oinarrizko arauak: modu arduratsuan jardutea eta norbera eta gainerakoak errespetatzea.

Autoebaluatzeko ariketa bat eskuratu dezakezu, ikasleak IKTak modu osasungarrian nola erabiltzen diren jabetu daitezten.

Berrikusi hiruhilekoa

U-5 eta 6

Idatzi zure koadernoan erantzun zuzena

- 1 Germaniako zer erresuma lotuko zenuke Espainiarekin?
 - a) Saxoiak.
 - b) Bisigodoak.
 - c) Ostrogodoak.
- 2 711. urtean Iberiar penintsulara iritsi ziren, han egon ziren 1492ra arte, eta konkistatu zuten lurraldeari *Al Andalus* izena jarri zioten. Nor izan ziren?
 - a) Musulmanak.
 - b) Bisigodoak.
 - c) Germaniarrak.
- 3 Zer ziren alondegiak?
 - a) Salgaiak gordetzeko erabiltzen ziren biltegiak.
 - b) Gotorleku militarrek.
 - c) Eskulangileak eta merkatariak bizi ziren auzo garrantzitsuenak.
- 4 Erdi Aroko zer populazio-talde bizi ziren elizetan eta monasterioetan?
 - a) Nobleak.



b) Herri xehea.



c) Kleroa.



- 5 Zein da kristautasunaren liburu santua?
 - a) Korana.
 - b) Tora.
 - c) Biblia.
- 6 Zer gertaerarekin hasi zen Aro Modernoa?
 - a) Frantziako Iraultzarekin.
 - b) Amerikaren aurkikuntzarekin.
 - c) Idazketa agertzearekin batera.
- 7 Nor izan ziren Elisabet I.a Gaztelakoa eta Fernando II.a Aragoikoa?
 - a) Errege-erregina *Katolikoak*.
 - b) Amerika aurkitu zutenak.
 - c) Austria nagusiak.
- 8 Nork konkistatu zuen azteken inperioa?
 - a) Hernán Cortésekin.
 - b) Francisco Pizarrok.
- 9 Zerk eragin zuen XVII. mendeko krisialdi ekonomikoak Espainian?
 - a) Pobreziak eta eskaletasunak gora egin izanak.
 - b) Populazioa handitu izanak.
 - c) Lana eta ekoizpena handitu izanak.
- 10 Nor ziren gobernuko zereginen ardura izaten zuten eta errege-erreginen konfiantza osoa zuten pertsonak?
 - a) Bufoiak.
 - b) Balidoak.
 - c) Korrejidoreak.
- 11 Zein izan zen Espainiako artearen eta kulturaren une gorena, 100 urte inguru (1580-1660) iraun zuena?
 - a) Monarkiaren goren unea.
 - b) Ilustrazioa.
 - c) Urrezko Mendea.

134

Erantzunak (Idatzi zure koadernoan erantzun zuzena)

- 1 b) Bisigodoak.
- 2 a) Musulmanak.
- 3 a) Salgaiak gordetzeko erabiltzen ziren biltegiak.
- 4 c) Kleroa.
- 5 c) Biblia.
- 6 b) Amerikaren aurkikuntzarekin.
- 7 a) Errege-erregina *Katolikoak*.
- 8 a) Hernán Cortésekin.
- 9 a) Pobreziak eta eskaletasunak gora egin izanak.
- 10 b) Balidoak.
- 11 c) Urrezko Mendea.

Erantzunak (Erantzun zure koadernoan galdera hauei)

12 Hiriak harresiz inguratuta zeuden eta kale estuak zituzten. Harresiaren barruko aldeari medina esaten zitzaion, eta harresiaren kanpoko aldean errebalak zeuden. Hiriek gotorlekua, meskitak, zokoa eta bainuetxe publikoak izaten zituzten. Herritarrek eskulangintzan eta produktuen salerosketan egiten zuten lan.


- 13 1. Noblezia.
2. Kleroa.
3. Herri xehea.

Noblezia gizartearen gutxiengo batek osatutako talde pribilegiatu bat zen. Gainerako taldeak defendatzen zituzten, eta gazteluetan bizi ziren.


Kleroa ere talde pribilegiatua zen, eta otoitz egiten zuen pertsonak salbatzeko. Elizetan eta monasterioetan bizi ziren. Otoitz egiteaz gain, monjeek eta mojek liburuak eskuz kopiatzen zituzten, irakurtzen eta idazten zekiten pertsona bakanetakoak baitziren.

Erantzun zure koadernoan galdera hauei

- 12** Nolakoak ziren hiriak Al Andalusen?
- 13** Nolakoak zen bizitza Erdi Aroko kristau-erresumetan?
Lehenik, aztertu irudia eta adierazi zenbaki batekin zehaztutako gizarte-taldeak edo estamentuak.
Ondoren, azaldu non bizi zen eta zertan aritzen zen estamentu bakoitza. Nor ziren talde pribilegiatuak? Zertan ziren ezberdin talde pribilegiatuak eta ez-pribilegiatuak?



- 14** Azaldu zer ziren gremioak (A).
- 15** Errege honen erregealdian, ekonomia modernizatu, irakaskuntza publikoa eta zientzien ikasketa bultzatu, eta eraikinak eraiki ziren; adibidez, Madrilgo Errege Behatokia edo Alcalako atea (B).
Zer errege zen? Gobernatzeko zer modu berri ezarri zuen? Nola zegoen osatuta?



anayaharitzta.es Kontsultatu «IKTak ondo erabili V» fitxa baliabide-bankuan.

Lankidetzako ikaskuntza
Buru-hausgarria

«Erantzun zure koadernoan galdera hauei» ataleko ariketak egiteko, ikasleak lau kideko talde heterogeneoetan banatu eta lankidetzan jarduteko teknika hau erabil dezakegu. Lehenik eta behin, proposatutako lau ataleko (ariketa) bakoitza taldeko kide bati esleituko diogu. Behar beste baliabide eskainiko dizkiegu, eta, behar izanez gero, unitatean atzera egin ahal izango dute, kontsultak egiteko. Ikasle bakoitzak zeregina bere kabuz egin ahal izango du horrela.

Ondoren, ariketa berari erantzun dioten «aditu-taldeak» egingo dira, eta beren aurkikuntzak bateratuko dituzte. Gauza jakina den arren, gogoratu talde bakoitzean ariketa bakar baten (aurrez esleitu zaienaren) erantzunak eztabaidatuko direla.

Jarraian, «aditu» bakoitza bere jatorrizko taldera itzuliko da, eta taldekideei bere ekarpenen berri emango die.

Azkenik, taldekide bakoitzak bere koadernoan idatziko ditu lortutako erantzunak.

Herri xehea nekazariak osatzen zuten. Beste taldeak mantentzeko eta elikatzeko lan egiten zuten. Feudoen barruan bizi ziren, gaztelutik hurbil zeuden herrixketan, eta haien nahiz nobleen lurak lantzen zituzten. Uztaren zati handi bat nobleei ematen zieten eta zergak ordaintzen zituzten. Talde ez-pribilegiatua zen.

Talde pribilegiatuak noblezia eta kleroa ziren. Talde horiek desberdinak ziren talde ez-pribilegiatuen (nekazariaren) aldean, egoera ekonomiko hobea zutelako, eta, pribilegioei esker, zergarik ordaindu behar ez zutelako.

- 14** Lanbide bera zuten eskulangileen elkarteak ziren. Beren eskubideak babesteko eta kideen beharrei erantzuteko biltzen ziren.
- 15** Karlos III.a. Despotismo ilustratua. Despotismo ilustratua Ilustrazioaren ideia aurrerakoiak eta absolutismoa uztartzen saiatu zen gobernu mota bat izan zen. Boterea monarka absolutuen esku zegoen oraindik, baina mendekoen garapena eta zoriontasuna lortzeko erreformak egin zituzten.

